

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Hasierako onespena ematea zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeari

Udalbatza honek, 2020ko urriaren 15ean egindako aparteko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeari, epigrafe honetan:

- 1. epigrafea: zaborra biltzeko zerbitzu publikoaren tasa.

Argitara ematen da, interesatuek espedientea aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Epe hori igarotakoan erreklamaziorik aurkeztu ez bada, esandako erabakia behin betiko onetsizat emango da.

Legutio, 2020ko urriaren 16a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO